



Bolunbarri

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Bolunbarri

43° 11' 4"

2° 36' 3"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Bolunbarri... situada en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, en su barriada de Sarria, que comprende con inclusión de su horno y zaguan cuarenta y ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de una vivienda, con un piso y entresuelo...”
DJE, 1/133 or. (1864)

Bizitza bateko baserri honen inguruko lehen aipu dokumentala 1865. urtean aurkitzen dugu, *Bolumbarri* (DJE, 1/ 133. or.), alegia, eta hortik aurrera, dokumentu guztietan izen bera agertzen zaigu. Baserriko eremura sartzeko atean “*Bolunbarri 1860-1995*” inskripzioa ikus dezakegu. Horren arabera, pentsa daiteke 1860. urtea baserriaren eraikitze-datarekin bat datorrela, eta 1995ekoa azkeneko zaharberritzearen data dela. Egun, beste zaharberritze-fase batean murgildurik dago, bizitza bateko baserria izate-tik bizitza biko baserrira pasatzeko, hain zuzen ere.

Etxe ederra, zaharberritze lanak izanda ere, bere jatorrizko egitura gorde duena. Gainera, bat datorrena ate-aldean dagoen inskripzioko datarekin, XIX. mendeko itxura guztia dauka eta. Bi isuritako teilatupean hiru solairu narbarmentzen dira eta bere baoak hiru ardatzen arabera antolatuta. Behekoan, ate dintelduna eta alboetan, leiho bana. Lehenengo solairuan, azpikoekin lerrotatuta, beste bana. Eta ganbaran, balkoi luzea, hiru baoak elkartuz eta horizontaltasuna emanez fatxadari, goranzko tendentzia apurtuz. Horma guztiak luzituta daude, kontraste ederra eginaz ate, leiho eta ertzetako harlanduen kolore gorrixkarekin.

toponimia

Izen bitxia da Bolunbarri baina kasu honetan, gure ustez, litekeena da bertako leku-izena ez izatea. Izenaren osagaiak argiak dira, bolu hitza, “errota”, konposatuetan bolun bihurtzen dena eta barri. Bolu hitza latineko molinum-etik dator, gaztelaniazko molino bezala, eta euskaraz bolinu bihurtu eta gero bolu bihurtu zen. Nahiko erabilia izan zen garai batean, eta adibidez, hurbil dugu Bolibar ezaguna, gaur egun Errotaibar deituko genukeena. Kontua da bolu hitza aspaldian utzi zela bizkaieraz eta, esaterako, Getxon badago errota bat honela ageri dena XX. mendeko aipu batean: “El molino harinero Bolunzarreta conocido mas generalmente por Errotabarri”. Ikus daitekeen bezala jendeak ez zuen ulertzen Bolunzarreta zer zen. Horregatik, kontuan hartuta Bolunbarri hau 1860koa zela eta Markina-Xemeinen badagoela horela deitzen den etxea uste dugu handik etorritakoek jarritako izena dela segurua asko horrela esaten zitzaielako.